

BIZENTE AMEZAGA ARESTI

Hau ere, bizkaitarra genduen. Algortan jaioa, 1901 uztailaren 4-an, eta Venezuelako Caracasen ila, 1969 otsailaren 5-ean.

Legegizon egin zen Salamancan, eta izkuntzazale bilakatu, ingeles, frantses, griegu, latin eta euskera ikasi bait zituen.

Atzerrira jo zuen, eta Montevideon eta Caracasen irakasle jardun. Instituto Americano de Estudios Vascos delakoa sortu ta Venezuelako euskal-jatorriko gizon asko aztertu zituen istori-lanetan. Shakespeareren «Hamlet» eta Juan Ramon Jimenezen «Platero y yo» euskeraz eman zizkigun. Esquilo, Plinio, Descartes eta Cervantes idazleen lanak ere itzuli zituen.

Laguntzaile izendatu zuen Euskaltzaindiak eta haren izkera, geroago ta jatorrago ta atseginago zen. Jaunarengan atsedean beza haren gogoak.

E. Erkiaga

JOXE OLAIZOLA JOAN ZAIGU

(G. B.)

IRUROGEI TA BI URTE SANTA MARIA'KO ORGANU-JOILLE
EUSKALTZAINDIKO LAGUNTZAILLETAKOA

Donostia'k eta Euskalerrri osoak, gizon aundia galdu du. Bere larogei ta sei urtekin ere, azkenerarte tinko ikusi izan degu Donostia'ko kaletan. Ez otzak, eta ez beroak eragiten zion etxe-zuloan sartuta egoteko.

Joxe Olaizola, bere bizar tajutuarekin, gure erriko apaingarri bat bezela ikusten genduan gure artean. Ba-zirudian betiko emen geldituko zitzaigula; baiña gaitz zital batek jo zuan azkenerako ta gaixo-aldi luze ta kristauki eramanak, or kendu digu bizien artetik.

Etzan gaurkoa gizona, 1883'garren urteko ilbeltzaren 27'garrenean jaioa Ernani'n, bereala nabarmendu zan musika-saillean. Bere etxean aurrena, bere amaren eta anai-arreben artean, erakutsi zuan musikarako zekarren gaitasuna.

Asierak, Ernani'n bertan izan zituan, Manuel Zendoia maixu argiaren begipean. Gero Erriko Etxeak zeukan Akademian jarraituko zuan. Ba zan aldi aretan Donostia'n, Euskalerrria kalean, «Amigos del País»koak sortutako «Erti Ederretako Akademia». An jarraitu zuan gure gizonak bere musika-ikasgua. Etxe artako maixu sonatuak izan ziran, Alfredo Larrotxa, Manuel eta Jerman Zendoia, Bonifacio Etxeberria ta Gregorio Anton del Saz, beste batzuen artean. Ba zuten bertan pedalier eta bi zerrenda-tekla zituan organua, ta an ekin zion Olaizola gazteak bere saiaketak moldatzen.

Etxe aretan ba zan ere, Abesbatza bat, «La Coral» izenekoa. Asieran, Etxeberria zuten gidari. Abesbatz ura kantarien erabakiz sakabanatu zan eta aren orde, «Orfeon Donostiarra» izeneko taldea sortu zuten. Abesbatz berria bere lenengo urtetan Lasala, enparantzako «Unión Artesana»n biltzen zan bere saioetarako. Oñate, Sainz eta Luzuriaga'ren ondoren, Sekundino Esnaola'k artu zuan taldearen gidaritzan. An zebillen tartean, maixu gazte zan gure Olaizola'tar Joxe. Au, solfeotarako maixu izendatu zuten. Tartean zebiltzan orduan Manuel Arruti tenorra ta gero gidari izango zan Sekundino Esnaola abots sendotakoa.